


Atzerriko Hizkuntza



Orientabide
didaktikoak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK GARATZEKO ESKEMA

1. Dokumentuaren xedea
2. Atzerriko Hizkuntza ikasgaiaren ezaugarriak
3. Atzerriko Hizkuntza ikasgaiaren ekarpenak oinarrizko gaitasunak garatzeko
4. Oinarrizko gaitasunen eta hizkuntzen curriculumeko atalen arteko lotura
5. Orientabide didaktikoak
 - 5.1. Metodologia
 - 5.2. Irakaslearen eta ikaslearen eginkizunak
 - 5.3. Ikastaldearen kudeatzea
 - 5.4. Denboraren eta tokiaren kudeatzea
 - 5.5. Baliabideak
 - 5.6. Ikasgelako jarduerak antolatzea
 - 5.7. Edukiak hautatzeko eta lehenesteko irizpideak
 - 5.8. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozkoaren ulermena
 - 5.9. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozko adierazpena
 - 5.10. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: interakzioa
 - 5.11. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: irakurmena
 - 5.12. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: idazmena
 - 5.13. Ebaluazioa
6. Baliabideak
7. Bibliografia

1. DOKUMENTUAREN XEDEA

Dokumentu honek Bigarren Hezkuntzako Atzerriko Hizkuntza eskola saioetarako orientabide didaktikoak biltzen ditu.

Orientabideok hizkuntzaren irakaste-prozesua antolatzen laguntzea dute helburu, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntzen curriculumean jasotako printzipioen arabera, beraz, ikasgaiaren helburu orokorrak lortzera zein oinarrizko gaitasunak garatzera bideratuta daude.

Dokumentu honek bere egiten ditu ikaskuntza aktiboaren printzipioak; eta horien arabera ikaskuntza eta irakaskuntza-prozesuaren metodologia-aldagaiak aztertzen ditu.

2. ATZERRIKO HIZKUNTZA IKASGAIAREN EZAUGARRIAK

XXI. mendeko gizartearen ezaugarriak aipagarriena aniztasuna da. Hizkuntza eta pertsonen dagokienez, kultura askotarikoa da. Horrek, hizkuntza desberdinetako hiztunen arteko mugikortasuna, elkartrukea eta komunikazioa dakar eta horrenbestez, demografia-, ekonomia- eta gizarte-erronka berriei erantzun ahal izateko, atzerriko hizkuntzak ikastea sustatu behar da. Europa eta munduari begira, EAEko Hizkuntza Sailaren egitekoa da ikasleek atzerriko hizkuntzetan gaitasun egokia eskuratzea.

Oinarrizko Hezkuntzaren helburua pertsonaren garapen osoa eta harmonikoa lortzea da, jakintza-, afektibitate- eta gizarte-gaietan. Garapen horren oinarrizko osagaiak hizkuntza- eta literatura-hezkuntza dira; bi osagai horiek, gizartean nahiz norbanakoan lantzen diren jardueretako hainbat esparrutan hizkuntza erabiltzeko ahalmena adierazten dute.

Hizkuntza funtsezko alderdia da giza garapenerako, eta, gainera, funtzio bikoitza du: norbanakoaren garapena eta gizarte-garapena. Norbanakoaren garapena: pertsona bakoitzari pentsatzeko, ezagutza aldatzeko, eta bere jardura bereziak arautzeko eta adierazteko ahalmena ematen diolako. Gizarte-garapena: hizkuntzak gizartearen bidez transmititzeaz eta gordetzeaz gainera, giza taldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duten jardura baten inguruan eraikitzen eta garatzen dira. Hizkuntza da, hain zuzen, kultura sortzeko, horren oinarriak ezartzeko eta transmititzeko tresna. Lotura zuzena du pertsonen bizitza afektiboarekin eta kognitiboarekin, eta, gainera, sentimenduen erregulatzaile eta ikaskuntza ororen (bizitzakoak nahiz akademikoak) bitarteko nagusi da; izan ere, esperientziak, hitzen bidez adierazi ondoren, aldatu eta beste maila bat hartzen du. Hori dela eta, hizkuntza bat ondo jakiteak tresna egokiak edukitzea dakar norbanakoaren barnera hobeto hurbiltzeko, gainerakoekin harremanetan jartzeko, elkarbizitza arautzeko, besteekin lankidetzan aritzeko eta baita modu kritikoan eta autonomoan ikasteko ere.

Hizkuntzen ikas-irakaskuntzen helbururik behinena hizkuntza-komunikazioa garatzea da, hau da, hizkuntzaren inguruko ezagutza eta erabilera prozedurak garatzea gizarteko hainbat eremutan eraginkor jarduteko. Beraz, Atzerriko Hizkuntza ikasgaiaren ardatz nagusia hau da: komunikazio-testuinguru desberdinetan hitz egiteko, idazteko, irakurtzeko, elkarreragiteko eta entzuteko trebetasunak eta estrategiak garatzea.

Bestalde, Oinarrizko Hezkuntzaren beste helburu nagusietako bat ikasle eleanitzak lortzea da. Horrek hizkuntza-irakasleak Hizkuntzen Trataera Bateratua planteatzera

behartzen ditu. Izan ere, hizkuntzak modu bateratuan irakastea arrazoi hauen ondorio da: batetik, hiztun elebidunak edo eleanitzak dakizkien hizkuntzen bidez hornitzen ditu ezagutzak eta emozioak; bestetik, hizkuntza-ikaskuntzak transferitu egiten dira eta hirugarrenik, hainbat hizkuntza egon ohi dira aldi berean hiztunek parte hartzen duten hizkuntzaren erabilera-eremuetan. Egiaztapen horien arabera, beraz, hizkuntza bakoitzak dituen ezaugarri bereziak landu beharko dira eta bateragarriak eta transferigarriak direnak hizkuntza guztien artean banatu.

3. ATZERRIKO HIZKUNTZA IKASGAIAREN EKARPENAK OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEKO

Zer egin daiteke Atzerriko Hizkuntza ikasgaiaren Oinarrizko Gaitasunak garatzen laguntzeko?

Ikasgai honek hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenari egiten dion ageriko ekarpenaz gain, beste oinarrizko gaitasunen garapenari ere laguntzen dio.

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Hizkuntza Komunikazio tresna izateaz gain, mundua irudikatzeko tresna pribilegiatua da eta pentsamenduaren eta ezagutzaren oinarrian dago. Beraz, hizkuntzaren bidez ezagutzak eskuratzea eta eraikitzea oso lotuta dago ikasten ikasteko oinarrizko gaitasunari.

Gaitasun hau garatzen laguntzeko honelako jarduerak proposatu daitezke:

- Ikaskuntza helburuak zehaztea sekuentzia edo unitate didaktikoen hasieran.
- Ikasitakoaren inguruko berrikusketak.
- Ikaskuntzan erabili diren estrategien inguruko hausnarketa jarduerak.
- ...

1. Which activity or activities did you like most? Why?					
2. Which activity or activities do you think as most difficult? Why?					
3. Which activity or activities do you think as most useful to learn the contents related to the unit? Why?					
4. The oral and written texts used in the activities are:					
Very difficult		Difficult	Fair		Easy
5. You think the work has been done:					
Very slowly		Too fast		At the right speed	
6. Did working in groups help you to learn? Why?					
7. Did you feel OK working in your group? Why?					
8. This unit has helped you to get:					
Content:	A lot	Quite	Enough	Little	Nothing
Working techniques:	A lot	Quite	Enough	Little	Nothing
Interest & motivation:	A lot	Quite	Enough	Little	Nothing
9. Did the teacher provide you with enough information, materials and help to carry out the project?					
10. Any additional comments or suggestions:					

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.

Hizkuntza-alorrak zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunari laguntzen dio honetan: mundua interpretatzen, mezuak analizatzen, bizimodu desberdinen kausa-ondorioak argudiatzen eta arrazoitzen, eta ezagutzaren esparru askotarikoetara lotutako ahozko eta idatzizko testuak erabiltzen. Ikasleekin interesgarri izan daitezkeen osasun-, kontsumo-, zientzia- eta teknologia-gaien inguruan lan egiteak ere gaitasun hau garatzen laguntzen du.

Gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:


- Baliabide naturalen zentzuzko erabilerari eta osasunari lotutako gaien inguruko lan-proiektuak burutzea.
- Zientzia-azalpenak eta eztabaidak entzutea.
- Zientzia- eta teknologia-kulturari lotutako testu-generoak lantzea.
- ...

Matematikarako gaitasuna.

Matematikari lotutako alderdi batzuk, adsibidez, testu ez jarraiak (grafikoak, eskalak, portzentajeak...) ulertu eta interpretatu egin behar izaten dira; horretarako, hizkuntza erabili behar da nahitaez. Bestalde, datuak, informazioak eta argudioak -arrazoiketa logikoak egitean, esaterako- zehatz interpretatu eta adierazi behar izaten dira; horrela pentsaera abstraktuari eta matematikari lotutako trebetasunak lantzen dira.

Gaitasun hau garatzeko jarduera hauek proposa daitezke:

- Grafikoak dituzten testuen inguruko jarduerak egitea.
- Gaitzat matematika-edukiak dituzten proiektuak burutzea.
- Testu-generoak analizatzean eta ekoiztean estatistikari lotutako datuak erabiltzea.
- ...



Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Hizkuntza erabiltzen ikastea arazoak aztertzen eta konpontzen ikastea ere bada. Horretarako, egitekoak zehazteko eta erabakiak hartzeko, komunikazio-egoera bakoitzak behar dituen estrategiak erabili behar dira; izan ere, hizkuntzaren eginkizunetako bat norberaren jardura antolatzea eta bideratzea da. Horregatik, hizkuntza-trebetasunak garatuta, norberaren ekimena garatzen da, batetik, eta gero eta autonomia handiagoz jokatzeko lortzen da, bestetik.

Gaitasun hau garatzeko, jardura hauek proposa daitezke:

- Autoerregulazio-mekanismoak abiaraziko dituzten lan-proiektuak programatzea.
- Autoebaluazio- eta koebaluazio-jarduerak egitea, lortutako helburuez eta egindako akatsez hausnartu ahal izateko.
- Ikasleen estiloak, interesak, zaletasunak... kontuan hartzea.
- ...

Congratulations!

What is being a writer like?
But, wait a minute! You haven't finished yet. Once the work is finished, it has to be PUBLISHED!
Follow these tips to get your works ready to be published and ...
GOOD LUCK!

- ❖ You have to submit your work in a professional manner.
Illustrate and format your manuscript neatly.
- ❖ Write a record about your works including:
 - Index of your works.
 - What you have written: short story, poem, article ...
 - The genre: romance, horror, thriller ...
 - Fiction or non-fiction.
 - Length of your works (number of pages, words).
 - If it has illustrations.
 - A brief description of each work.
 - Audience target (children, teenagers ...).
 - Some information about the author:
 - Brief autobiographical notes.
 - Reasons for writing the works.
 - Contact details (e-mail)

BHINEBI S3U1

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

Atzerriko hizkuntza ikasgaien informazio-iturri askotarikoak hainbat euskarritan erabili behar dituzte ikasleek; beraz, estrategiak irakatsi behar zaizkie informazioa biltzeko, informazio-iturri askotara jotzeko eta informazioa iritzi kritikoz hautatzeko, interpretatzeko eta etikaz erabiltzeko.

Bestalde, teknologia digitalaren bilakaerak beste komunikazio-bide berri batzuk – horiek ere ikasgelara eramatea komeni da– plazaratu ditu. Komunikatzeko aukerak ugaltu egin dira, eta horrek beste hizkuntzekiko eta kulturekiko erlazioak ahalbidetu

ditu, eta irakurketaren eta idazketaren gizarte-erabilerak bultzatu; horrek ezagutza denen artean eraiki ahal izatea ekarri du.

Gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Web 2.0ren aukerak baliatzea, hizkuntzari lotutako lana bideratzeko.
- Internet erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, berrantolatzeko eta jakinarazteko.
- Ikasgelan testu multimediak erabiltzea.
- ...

Giza- eta arte-kulturarako gaitasuna.

Gaitasun hau garatzeko, funtsezko egitekoak dira literatura-lanak entzutea, irakurtzea, interpretatzea eta balioestea. Arte-adierazpenak elkarrekin erlazionatu behar dira, eta, ulermen kritikoaren bidez, haien elementu inplizitu eta esplizituak nabarmendu.

Gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Kultura- eta arte-errealitatea ikasleengana hurbiltzeko jarduerak egitea.
- Literatura ulertu eta interpretatzeko tertuliak, sormen-tailerrak eta talde interaktiboen bidezko lana egitea; ekintza horietan, pertsona helduek ikasleekin batera interakzioan jardungo dute, interpretazio-lanean laguntze aldera.
- Ahozko literaturaren testuak entzuteko jarduerak burutzea, gure errealitate kultural eta artistikoa balioesteko.
- Historia-, arte-, hiri-ibilbideak eta bidaiak egitea, eta, horrez gain, museoetara eta erakusketetara bisitak egitea.
- ...

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Gaitasun hau gizarte-errealitatearen eta ikasleen intereseko gaien inguruko proiektuak proposatuz gara daiteke, baita munduan diren gatazken eta gai unibertsalen inguruan hausnartuz ere; gai horietako asko testu literarioetan ageri dira. Halaber, gizarte-abileziak (gizarte-komunikazioko arauak, lankidetzan aritzekoak) garatzea bultzatu eta sustatu behar da gelan, eta, horrekin batera, hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera baikorrak. Izan ere, hizkuntzaren bidez transmititzen dira, alde batetik, munduko ohituren inguruan ditugun irudi estereotipatuak, eta, bestetik, jarrera baztertzailak. Horien guztien gainean hausnartuz ekin diezaiokegu gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzeari.

Horretaz gain, gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Gizarte-gaien eta gaurkotasuna duten gaien inguruko proiektuak egitea.
- Ikasgelan interakzioa erabiltzea eta ikasleekin negoziatzea, ikasteko estrategia gisa.
- Gizarteko komunikazio-arauak errespetatuz, komunikazio-trukeetan parte hartzea, hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera baikorrak sustatze aldera, batez ere hizkuntza gutxituen kasuan.
- ...

4. OINARRIZKO GAITASUNEN ETA CURRICULUMENKO ELEMENTUEN LOTURA

Curriculumean, ikasgaien helburu orokorrek gaitasunen garapena dute irizpide. Halaber, helburu bakoitzean oinarrizko gaitasunak suma daitezke. Taulan honek erlazio hori erakusten du.

1. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna
2. Ikasten ikasteko gaitasuna
3. Matematikarako gaitasuna
4. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
7. Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

HELBURUAK	1	2	3	4	5	6	7	8
1. Ohiko komunikazio-egoeretan sortzen diren diskurtso mintzatu eta idatziak (ikasleen gaitasun-mailaren eta interesen arabera egokituak) ulertzea eta, pertsona bakoitzaren, gizartearen edo eskolaren xedeei erantzuteko, horiek interpretatzea.	x	x	x	x	x	x	x	x
2. Ahoz eta idatziz behar besteko autonomiaz adierazteko gaitasuna izatea, ohiko komunikazio-egoeretan sortzen diren premiei behar bezala, koherentziaz eta zuzen erantzuteko.	x	x	x	x	x	x	x	x
3. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko; dibertsitate hori, zehazki, kultura-aberastasun gisa baloratuko da.		x		x		x		
4. Ulermen- eta sorkuntza-prozedurei dagokienez, atzerriko hizkuntzaren sistemari buruz hausnartzea; horrez gainera, hizkuntzari buruzko ezagutzak eta hizkuntzaren erabilera-arauak autonomia apur batez aplikatuko dira, eta hizkuntzen artean transferi daitezkeen ezagutzak eraginkortasunez erabiliko dira, norberaren sortze-lana hobetzeko.		x		x				x
5. Hizkuntzek dituzten gizarte-erabilerei buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak eskuratzeko; hala, atzerriko hizkuntza eta hizkuntzak, oro har, jatorri, hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonak komunikatzeko eta elkar ulertzeko baliabideak hartuko dira, eta, horrez gainera, balio-judizioak eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.		x		x		x		
6. Gizarte-komunikazioko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, atzerriko hizkuntzan informazioa lortzeko, komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.				x	x	x		x
7. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta arloetan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estategiak transferitzeko; horrela, atzerriko hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko ahalmenari dagokionez, nor bere buruarengan gero eta konfiantza handiagoa izango du ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko.		x		x	x			x
8. Ereduzko testuak eta norberak hautatutako testuak irakurri literatura-obrez gozatzea eta ikus-entzunezko beste eremu artistiko batzuk (antzerkia, zinema, irratia, telebista...) kontuan hartzea, mundua eta giza egoera ulertzeko, hizkuntzari dagokionez aberasteko eta sentiberatasun estetikoak garatzeko.				x			x	x

Taula honek, berriz, oinarrizko gaitasunen eta curriculumekeko elementuen arteko erlazioa islatzen du.

DBH 2

EBALUAZIO- IRIZPIDEAK	ARLOAREN HELBURUAK (GAITASUNAK)	ONARRIZKO GAITASUNAK
<p>1. Komunikabideetan edo eskola-eremuan sortutako ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea; horrez gainera, aurrez emandako jarraibideak oinarritzat hartuta, informazio zehatzak antzematea.</p> <p>2. Bizitza akademikoko testu idatziek eta ikasleen interesetatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideetako testu idatziek duten esanahia interpretatzea; horretarako, azterketa egiteko emandako jarraibideak oinarritzat hartuz, informazio eta datu esanguratsuak antzematea eta ondorioztatzea.</p> <p>9 Informazio- eta komunikazio-teknologiak eredueta oinarrituz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; eredueta oinarrituta testuak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak (ahozkoak nahiz idatziak) egiteko. Horrez gainera, erabilera horrekiko interesa agertzea.</p> <p>10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak ezagutzea, erabiltzea eta azaltzea.</p>	<p>1.Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.</p>	<p>Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna</p> <p>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna</p> <p>Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna</p>

5. ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

5.1. Ikasgaiari lotutako metodologia.

Zer ikuspegi metodologiko da egokiena ikasgai honetan?

Ikuspegi komunikatiboa. Hizkuntza erabiltzen ikasi eta irakasteko ikaskuntza aktiboa behar da, ikasleek horren bidez, izaten jakin dezaten, egiten jakin dezaten eta batez ere ezagutzak aplikatzen jakin dezaten. Beraz, hizkuntza ikasteko eta irakasteko parametroak aldatu egin behar dira, eta hizkuntzaren deskripzioaren eta ezagutzen transmisio eta jasotze hutsaren planteamendu didaktikoetatik beste planteamendu metodologiko batera lerratu: ikuspegi komunikatibora, hain zuzen ere.

Ikuspegi Komunikatiboa.

Hizkuntza komunikazio- eta irudikapen-tresna delako eta ikasleek komunikazio-gaitasuna garatuko badute, hizkuntza erabili egin behar dutelako.

Horretarako, ikasleek beren komunikazio-beharretan oinarrituta, eta testuinguru baten barruan, entzun, idatzi, hitz egin, solasean aritu eta irakurri egingo dute.

Horrela, ahozko eta idatzizko testu errealak zein egokitutakoak, hizkuntzaren hainbat erabilera eremutakoak, ulertzea, interpretatzea eta ekoiztea izango da ikaste prozesuaren ardatza, eta, prozesu horretan, hizkuntzaren gainean hausnartzea ere txertatuko da.

Kontuan hartu behar da komunikazioa ez dela soil-soilik ahozko eta idatzizko testuak ekoiztera mugatzen; prozesua ere bereganatzen du, helburu zehatza duen prozesua, hain zuzen ere. Eta prozesu horri lotuta, ez da nahikoa ikasleek hizkuntzari buruzko datu solteak berenganatzea –lexikoa, arauak, funtzioak...–; ezinbestekoa da ezagutza horiek gogoetaren bidez prozesuan txertatzea eta erabiltzen ikastea:

- Hizkuntza erabiltzeak eragiten du hizkuntza ikastea.
- Komunikatu beharrak, interesak eta motibazioa bultzatzen ditu ikasleak ikastera.
- Hizkuntza ikastea ikasleak eraiki behar duen prozesua da.

Horrek guztiak hau eskatzen du: ataza errealak eta esanguratsuak abiapuntutzat hartuta eta hizkuntzaren gaineko hausnartze-lana helburuaren menpe jartzea xede komunikatibo erreal eta funtzionalei erantzuteko.

Ikuspegi metodologiko honek erabateko eragina du hainbat esparrutan; besteak beste, ikasgelaren dinamikan, helburuen formulazioan, material didaktikoaren hautaketan... Beraz, oso kontuan hartu behar dira grafiko honetan adierazitako aldagaiak:



CLIL/EHII ikuspegia.

CLIL metodologiak edukien eta hizkuntzen irakaskuntza integratua du oinarri. Metodologia hau ez da berria Euskadiko Autonomi Erkidegoan, izan ere, hezkuntza sistemaren bitartez euskaldundu diren ikasleek horrela ikasi dute: euskara ikasgaia ez ezik, beste arlo batzuk ere euskaraz irakatsi izan dira.

CLIL ikuspegiak honako ekarpen hauek egiten ditu:

- Kulturarteko ezaguera eta elkar ulertzea sustatzen ditu.
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna hobetzen du, batik bat ahozko adierazpena.
- Eleaniztasunarekiko interesa eta aldeko jarrera sortzen laguntzen du.

- Hizkuntza era esanguratsuan erabiltzeari bidea ematen dio; hots, ikasleak egoera errealean erabiltzen du hizkuntza.
- Goi-mailako trebezia kognitibo eta linguistikoak garatzea errazten du.
- Ikasleek ikasten ari diren hizkuntzarekin harreman zuzenagoa izaten dute.
- Irakasteko teknika, metodo eta jardute pedagogiko askotarikoak erabiltzea ahalbidetzen du.
- Ikasleak motibazio eta konfidantza handiagoa izaten du bai atzerriko hizkuntzan bai hizkuntza horretan irakasten den arloan.

SIOP (*Sheltered Instruction Observation Protocol*) ereduak ere, atzerriko hizkuntza ikasten ari diren ikasleen beharrei erantzuten die, edukiak eta hizkuntza bera ikastea uztartzen ditu. Horretarako zortzi pausu proposatzen ditu irakasleari unitateak diseinatzen eta planifikatzen laguntzeko.

Lan kooperatiboa.

Gizarteak eta lan-munduak bultzatuta era kooperatiboan jardun beharko dute ikasleek etorkizunean. Horregatik, gaur egungo eskolak beharizan horri eutsi behar dio. Lan kooperatiboak ez dakar soilik taldean lan egitea, izan ere, bermatu egin behar du taldekide guztiek aktiboki parte hartzen dutela eta denok behar-beharrezkoak direla nahi den helburua lortzeko.

Atzerriko hizkuntzako ikasgelan, ikasketa kooperatiboa garatzeko komeni da honako hauek buruan izatea:

- Talde heterogeneoak eratzea.
- Ikasketa kooperatiboaren teknikak erabiltzea: talde-lehiaketak (*TGT*), puzzlea, ikerketa taldeak...
- Informazio hutsuneak (*information gap principle*) betetzea: behar horrek ikasleak derrigortu egiten ditu kideekin elkarreagitera falta zaizkien informazio txatalak eskuratzeko.
- Ikasleen parte-hartzea bermatzeko talde-teknikak erabiltzea.

Atazetan oinarritutako ikaskuntza (*Task Based Learning*).

Atazetan oinarritutako ikaskuntzan, ikaslea da ardatza. Izan ere, haren esku daude zenbait erabaki eta eginkizun besteak beste, lanaren planteamendua eta zereginak banatzea.

Ikaskuntza mota honek bereziki benetako hizkuntzan eta ikasleen ekoizpenetan jartzen du arreta. Ekoizpenek, esanguratsuak izan behar dute, beraz, beti testuinguru adierazgarri eta errealean egiteko ariketak proposatuko dira. Hartara, zentzu praktikoa dutenez, ikaslea erakarri egiten dute eta hizkuntza ikasteko aldeko jarrera sortzen dute harengan.

Azken ekoizpena gauzatu baino lehen, ikasleek produkzio txikiagoak sortu behar dituzte, jakina. Irakaslearen zeregina da, ikasleei *input* edo eredu aberatsak eta askotarikoak aurkeztea eta aldi berean, apurka-apurka ekoizpena ahalbidetzeko, atzerriko hizkuntza eraikitzen laguntzen duten *scaffolds* edo aldamiok eskaintzea.

5.2. Irakaslearen eta ikaslearen eginkizunak

Zein dira irakaslearen eginkizunak?

- **Ikasleen laguntzaile eta gidari izatea.**

Egun, informazioaren gizartean bizi garelarik, irakaslearen egitekoa aldatu egin da, eta ezagutzaren transmisio-igorle eta azalpen-emaile hutsa eta bakarra izatetik ikasleen ikaste-prozesuan laguntzaile eta gidari izatera pasa da: ikasleei eskuragarri duten informazio askotarikoa biltzen, hautatzen eta bereganatzen lagundu behar die.

- **Ikasleek burutu ditzaketen erronkak planteatu eta egitekoa horien arabera planifikatzea.**

Irakasleak hautatu, planifikatu eta proposatu egiten ditu edukiak. Berak du ikasleen ikaskuntzaren eta egiteko hori bideratzeko prozesuaren erantzukizuna. Ikuspegi komunikatiboaren arabera, gaitasunak garatzen laguntzeko, irakasleak ikaskuntza-egoera irekiak abiarazi behar ditu, ikasleen interesak, arazoak eta zalantzak kontuan harturik, eta, horrez gain, ikasleak burutu ditzaketen erronkak planteatu, gatazka-egoerak bilatu eta horiek ebazteko prozesuak jarri behar ditu abian.

- **Ikasleen gaitasunen eta ahalmenen arabera prozesuen kontrola ziurtatzea.**

Irakasleak erregulatzen ditu ikaskuntza-prozesuak, ikastaldearen gaitasunen eta ahalmenen arabera; beraz, ikasleen heterogeneotasuna eta aniztasuna kontuan izan behar ditu, eta hori praktikan islatu behar du. Ikasle guztiei aukera eman behar die proposatutako helburuak erdiesteko, eta ahaleginak egin behar ditu ikasle bakoitzarengandik ahal denik eta etekinik handiena lortzeko.

- **Ikasleekin komunikatzeko bideak ahalbidetzea.**

Ez da ahaztu behar ikasgelan sortzen diren harremanek, ikasleek elkarrekin eta irakaslearekin dituztenek, eragina dutela komunikazioan eta horren barnean ezartzen diren lotura afektiboetan. Lotura horien arabera sortuko da lankidetzarako eta elkarbizitzarako giro aproposa. Ikasleen jarrera aktiboa sustatzeko, irakasleak parte-hartzera bultzatu behar ditu ikasleak, eta giro afektibo eta motibagarria sortzeko ahalegina egin behar du, ikasgelan interakzioa eta komunikazioa ahalbidetzen duten egoerak eragiteko.

- **Ikasleen autonomia eta autoerregulazioa bultzatzea.**

Ikasleei lagundu egin behar die autonomiaren eta autoerregulazioaren bidetik, eta, besteak beste, haiekin negoziatu egin behar du, komunikatzeko eta ikasteko teknikan trebatu egin behar ditu, eta ebaluazioan inplikatu, autoebaluazioaren eta koebaluazioaren bidez.

- **Ikasleentzako erreferentzia dela kontuan izatea.**

Atzerriko hizkuntzen irakaslea hizkuntza-eredu da ikasleentzat, eta haien erreferentzia-puntu nagusia, batik bat lehen urteetan. Beraz, hizkuntza egokia, zuzena eta aberatsa erabili behar du. Kontuan hartu behar da irakaslearen jarduteko erak, hizkuntzarekiko

jarrerak eta jokabideak zuzen-zuzenean eragiten diotela ikasleen hizkuntzaren ikaskuntza-eta bereganatze-egoerari; izan ere, gelan ikusi, bizi eta sentitutakoa eredu gisa erabil ditzakete ikasleek etorkizunean hizkuntza erabiltzean.

- **Hizkuntzarekiko jarrera baikorrak sustatzea.**

Begi bistan dago hizkuntzak jakitea ezinbestekoa dela mundu globalizatu honetan. Horrexegatik, gero eta garrantzi handiagoa ematen ari zaio hizkuntzak ikasteari, eta, oro har, hizkuntzak ikasteko jarrera hobea du gizarteak.

Jakina, hizkuntzarekiko nolako jarrera, halako erabilera. Beraz, ikasleen motibazioan eta interesean eragiteko, eta ikasleek hizkuntza egoera errealetan eta eskola esparrutik kanpokoetan erabil dezaten, irakasleak jarrerak duen garrantziaz konturatu behar du, eta ikasleen hizkuntza-jarrera landu.

Zein dira ikaslearen eginkizunak?

- **Hizkuntza erabiltzea eta haren erabileraren inguruan gogoeta egitea.**

Ikasleek hizkuntza erabili egin behar dute, hau da, irakurri, entzun, idatzi, hitz egin eta elkarrizketan aritu behar dute, eta erabilera horren gainean gogoeta egin.

- **Hizkuntzaren ikaskuntzan ardura hartzea, eta gero eta autonomoagoa izatea.**

Ikasleak berak eraikitzen du bere ikaskuntza-prozesua, irakasleak ematen dion laguntza eta gidaritza baliatuta.

Horregatik, ikasleak bere ikaste-prozesuaren ardura hartu, eta, helburu, behar, gaitasun eta abarren arabera, prozesua erregulatzen ikasi behar du, autoerregulazioa ikasten ikasteko funtsezko alderdia baita. Ikasten dakien ikasleak badaki egitekoa helburu baten arabera planifikatzen eta akatsak, zailtasunak eta hobetu behar dituen alderdiak identifikatzen.



Image by Glogster.com

Prozesu hori eraikitzeak luze jo dezake, eta mailaz mailakoa izan behar du, eta, zalantzarik gabe, irakasle-taldearen ahalegin bateratua eta ikasleen inplikazioa eskatzen du.

Beraz, autonomiaz jokatzeko, zeregin hauek egiten ikasi behar du ikasleak:

- Egitekoaren xedea, hau da, egiten duena zertarako egiten duen zehazten. Negoziazio-eta motibazio-jarduerak laguntzen dute egiteko horretan.
- Helburua lortzeko, egitekoa planifikatzen eta antolatzen. Horretarako, kontratu didaktikoa, talde-lana planifikatzeko orriak... erabil daitezke.
- Autoerregulaziorako proposamenen bidez, irizpideak identifikatzen, prozesua ondo gauzatzen ari den ala ez jakiteko. Eginkizun horretarako, lagungarriak dira kontrol-orriak eta autoebaluazio- zein koebaluazio-txantiloak.

5.3. Ikastaldea kudeatzea

Nola kudeatu ikastaldea?

Hizkuntzak erabiliz eraikitzen dira: besteekin solasean arituz, entzunez, hitz eginez, irakurriz eta idatziz. Horrenbestez, ikastaldea kudeatzeak bost trebezia horiek garatzea ahalbidetu behar die ikasleei.

Irakaskuntza aktiboak, irakaslearen eta ikasleen arteko komunikazioa bultzatu behar duenez, gelaren dinamika aldatzea dakar; beraz, taldekatze mota bat baino gehiago eta ikasleen esku-hartzeak erraztuko dituen antolamendua behar da.

Ikastaldea kudeatzeari dagokionez, ikasgelan bertan ikaskuntza aktiboa eta hizkuntzak erabiltzea sustatzeko, iradokizun hauek izan behar dira kontuan:

- Ikasgelan giro egokia sortzea, ikasleen artean giro afektibo aproposa lortzeko eta kortesia-arauak zaintzeko. Giza harreman eraginkorrak izateko, gizarte-komunikaziorako ezinbesteko arauak landu behar dira hizkuntza-eskoletan: hitz egiteko txandak antolatu, bestek esandakoa onartu, doinu egokia zaindu...
- Hizkuntzak ikasteko zein erabiltzeko motibazioa bultzatzea: helburuak jakinaraztea; lana gauzatzeko, negoziazio-jarduerak proposatzea; ikasleei hitza ematea... , eta batez ere ikasgelan proposatzen diren jarduerak benetako komunikazio-xedea izatea.
- Norberaren hizkuntzarekiko errespetua bultzatzea. Egoera eleanitzetan hizkuntza propioa balioestea da gainerako hizkuntzak ikasteko abiapuntua. Hiztuna darabilen hizkuntza-aldaerarekin (geografikoa nahiz soziala) identifikatu ohi da. Horregatik, ezinbestekoa da norberaren hizkuntza-aldaera balioestea, beste erabilera batzuk (formalagoak edo, besterik gabe, bestelakoak) erabiltzen ikasteko.
- Hizkuntzak ikasi edo erabiltzeko zailtasunak dituzten ikasleekiko errespetu-giroa sortzea. Ikasle guztiek eroso sentitu behar dute hizkuntza horretan, jendaurrean aritzeko orduan.
- Irakasle-taldeak era askotara antolatzea. Jardueren arabera eta ikasleen ezaugarriak kontuan izanik, talde heterogeneoak eta behin-behinekoak –jarduerak irauten duen bitartean arituko dira elkarrekin– eratzea bultzatu behar da.
- Jakintza guztion artean eraikitzen dela adieraztea: ikasitakoa finkatzeko modurik onena ikasitako hori erabiltzea dela, beti ere helburu komunikatibo baten mesedetan.
- Ikaskuntzari lotutako itzaropena sustatzea: ikasle guztiek hizkuntza ondo erabiltzen ikasiko duten itzaropena izatea, planteatutako erronkei ikasle guztiek erantzun ahal

izango dietela transmititzea...

5.4. Denbora eta tokia kudeatzea.

Nola antolatu denbora eta tokia?

Denbora banatzeak eta tokia antolatzeak ikaskuntza-irakaskuntza prozesua garatzen lagundu behar dute. Eskola-esparruko elementuak egituratzeko beharrezanetik sortzen da denbora eta espazioa osotasun gisa antolatzea. Horregatik, antolatzeko erabiltzen diren egiturak malgutu egin behar dira, didaktikari lotutako estrategiei lekua emateko. Denbora eta tokia antolatu ahal izateko, ikastetxeek autonomiaz jokatzeko aukerak behar dituzte.

Garrantzitsua al da denbora kudeatzea?

Alor guztietan denbora kudeatzen jakitea garrantzitsua bada, are garrantzitsuagoa da hizkuntza-alorrean; izan ere, hizkuntzak ikasteko, ezinbestekoa da denbora izatea. Luzaroan eta astiro garatzen den prozesua da, eta ikastetxe barruan zein kanpoan eraikitzen da.

Ordutegia antolatzean, beraz, iradokizun hauek izan behar dira kontuan:

- Irakurtzeari, bereziki, denbora ematea, ikastetxeko hizkuntza guztietan eta egunero, eta, ahal bada, hori ikasleen ordutegietan islatzea.
- Ikasleei hizkuntza erabiltzeko denbora ematea. Hizkuntza erabili egin behar dute – haiek ari dira ikasten–; beraz, irakasleak ezin du saioen denbora azalpenak emanek xahutu.
- Jarduera askotarikoak (elkarrizketa, eztabaida, aurkezpena...) egiteko denbora ematea:
- Denbora antolatu eta banatzea, hizkuntza-trebetasunak landu eta horiei lotutako jarduerak gauzatu ahal izateko: ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko, ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko, hizkuntzaren gainean hausnartzeko...

Garrantzitsua al da tokia antolatzea?

Tokia modu dinamikoan antolatu behar da –malgu eta aldatzeko aukerak emanek–, talde-harremanak sustatzeko: banaka zein taldeka, tartean elementu mugikorrek direla...

Ikasgelaren erabilerari dagokionez, hizkuntzen gela antolatu behar litzateke, eta bertan ikasgaia lantzeko materialak, hiztegiak, gelako liburutegia, ikus-entzunezkoak, multimediaak... eskuragarri izan.

Ikasgelaren estetikari lotuta, bestalde, ikasleen ekoizpenak ere agerian jarri behar lirateke, eta ikasgela ekoizpen horiekin hornitu, taldearen partaidetza- eta kohesio-gune bihurtzeko.

Hizkuntza-gelarik ez balego, ikasgela arruntetan hizkuntza-txokoak sor daitezke, eta multimedia-tresna eramangarriak erabili.

Beste gune batzuen erabilerari dagokionez, berriz, kontuan hartu behar da hizkuntzaren

ikaskuntza ez dela gelan bukatzen; horregatik, iradokizun hauek hartu behar lirateke kontuan:

- Ikastetxe barneko eta ikasgelatik kanpoko espazioak erabiltzea; esaterako, gainerako ikasgelak, liburutegia, ordenagailuak, erabilera askoko aretoak...
- Ikastetxetik kanpoko espazioak erabiltzea, ikasitakoaren funtzionaltasuna sustatzeko: ikasgaien arteko harremanak bultzatuko dira, eta proiektu globalak proposatuko.

5.5. Baliabideak.


Zer baliabide behar dira hizkuntzak ikasteko?

Baliabideak ikasleen komunikazio beharrezanen arabera antolatuko dira, besteak beste, hizkuntza-gelan -ikastetxean horrelakorik balego-, ikasgeletan eta ikastetxe barruko zein kanpoko guneeetan, beti ere gaur egun eskura dauden bitartekoak tajuz erabiliz. Edozelan ere, kalitatezko baliabide ugari eskaini behar zaizkie ikasleei atzerriko hizkuntza lantzeko orduan: erreferentzia-lanak (entziklopediak, hiztegiak, monografiak); irakurgaiak (aldizkariak, egunkariak, nobelak, poesia...), multimedia baliabideak (*podcastak*, bideoak, *blogak*, *wikiak*...). Horiek guztiak, formatu digital edota analogikoan, paperean edo euskarri elektronikoan eta egokiturik zein egokitu gabe, eta erregistro formal zein informalean.

Ikasleen ekoizpenek ere, tokia izan behar dute ikastetxean eta ikastetxetik kanpo. Horretarako, espazio fisikoak eta birtualak (hormak, panelak, komunikabideak, ikastetxeko intranet eta internet) atonduko dira denontzako ikusgai egon daitezen. Irizpideak ezarriko dira adierazgarriak diren lanak sailkatzeko eta gordetzeko, lan-bilduma osatu ahal izateko eta bihar edo etzi eskura izateko.

Bitarteko horiek guztiak modu egokian erabili ahal izateko, tresneria aproposa beharko litzateke: ordenagailuak, kanoiak, TV, DVD, CD irakurgailuak, arbel digitalak, ipodak, bideo eta argazki kamarak, panelak... jakina, dagokion softwareekin.

Atzerriko hizkuntzaz hitz egiten dugunean ingelesa, frantsesa eta alemana buruan ditugun arren, geure ikastetxea baliabidez hornitzailekoan, ikaskomunitateko kide guztien hizkuntzak edo kodeak (arabiera, portugesa, ijitoen hizkuntza, gormutuen hizkuntza, itsuen hizkuntza (Braille)...) ere aintzat hartu beharko ditugu, denon adetasunaren mesedetan.



5.6. Gelako jarduerak antolatzea.

Nola antolatu gelako jarduerak metodologia aktiboaren ikuspuntutik?

Ikaskuntza aktiboa proposatzen duen metodologiak komunikazio proiektuetan du oinarria eta jarduerak sekuentzia didaktikoetan antolatzea dakar. Jarduera bakoitzak bere zergatia eta bere funtzioa dauka, ikasleak ekoitzi behar duen azken ataza eraikitzeko. Ez dugu ahaztu behar ekimen guztiek eta azken ekoizpenak berak, jakina, esanguratsuak izan behar dutela. Hots, ikasleak argi izan behar du jarduera horrek zentzu praktikoa duela eguneroko bizitzan benetako helburu komunikatiboa betetzen duela eta horrekin hizkuntza-erabilera hobetuko duela.

Azken ekoizpen horretara iristeko, etxeak eraikitzen diren moduan, errazenetik zailenera -oinarritik teilatura- ekingo zaio lanari. Azkenean, dena biltzen duen ataza burutu arte, ikasleek ekoizpen txikiagoak sortu beharko dituzte, eskaintzen zaizkien *scaffolds* edo aldamioren bidez. *Scaffolding* horretan ezinbestekoa da *input* egokia, aberatsa, esanguratsua eta anitza izatea.

Komunikazio-proiektuen ezaugarriak.

Komunikazio-proiektuetan edukia eta egiturak batera lantzen dira (ikus metodologia *CLIL*) bata zein bestea jorratzeko jarduerak tartekatuz. Edukiak, curriculumak ezartzen dituenak ezezik, ikasleen interes eta gustuen arabekoak izan daitezke. Komunikazio-proiektuetan ikasleek hausnartu, planifikatu, ekoitzi, aurkeztu eta feedbacka jaso behar dute.

Komunikazio-proiektuetan, trebezia guztiak lantzen dira uztarturik -egunero-egunero gertatzen den legez-. Ikastetxeko aldizkarirako elkarrizketa burutzeko, esaterako, aldez aurretik galderak prestatu eta idatzi egiten dira gero, elkarrizketa egiterakoan, entzun, hitz egin eta elkarreragiten da, eta, argitaratu baino lehen, idatzitakoa irakurri egiten da. Beraz, azken eginkizuna testua idaztea den arren, egindako ibilbidean, beste trebeziak koherentziaz lantzen dira eta bidenabar, hizkuntzaren gaineko hausnarketan eta hizkuntza komunikaziorako gaitasunean aurrera egiten da.

Esan bezala, ikasleen azken ekoizpenak komunikazio-egoera errealei atxiki behar zaizkie, eta egoera horiek zehatzak eta ikasleekin adostutakoak izan behar dute. Komunikazio-proiektuek askotarikoak izan behar dute, ikasleen sormena, ekimena eta erantzukizuna bultzatzeko modukoak: adibidez, informazioa aurkitzea, eraldatzea eta aurkeztea. Aldi berean, multzokatze era askotako taldekatzeak erraztu behar dituzte bakarka, binaka, talde txikietan eta talde osoan lan egiteko. Taldeka badira bermatu egin behar da, taldeka ari direnean taldekide guztiek parte hartzen dutela ezinbestez, eta horretarako lan kooperatiborako teknikak (talde-lehiaketak, puzzlea, ikasle-taldeak eta ikerketa-taldeak) erabili behar dira.

Metodologiari dagokionez, erabiliko diren bitartekoak ere, interaktiboak, kolaboratiboak eta era askotakoak (*bloga, wikia, webquesta, joko didaktikoa, esperimendua, simulazioa, galdeketa...*) izatea komeni da. IKTek hainbat baliabide eskaintzen dute horretarako.

Proiektuak gauzatzeko urratsak.

Komunikazio-proiektuak garatzerakoan honako urrats hauei jarraituko zaizkie:

- Proiektua aurkeztu: xedea, nondik-norakoak eta ebaluazio-irizpideak. Ikasleekin adostu.

- Inputa aztertu, eta hausnarketa egin.
- Testua ekoitzi:
 1. Testua planifikatu, komunikazio egoeraren ezaugarrien arabera.
 2. Testua egituratu, erabiliko den informazioa bilatu, aukeratu eta sailkatu.
 3. Ikas-prozesuaren eduki linguistiko zein ez-linguistikoaren gainean hausnartzea.
 4. Testua ekoitzi, etengabe hausnartuz, berrikusiz eta zuzendu beharrekoak zuzenduz.
- Proiektua aurkeztu.
- Ebaluatu: etengabe, akatsetatik ikasteko, eta, komunikazio-gaitasuna hobetzeko.

5.7. Edukiak hautatzeko eta lehenesteko irizpideak.

Proiektu bakoitzak bere helburu didaktikoak, ikaskuntza-edukiak eta ebaluazio-irizpideak ditu, eta horiek guztiak indarrean dagoen curriculumaren eta dagokion ahozko zein idatzizko testuen arabera hautatuko dira. Horregatik, nahitaezkoa da hori guztia alde zuzenetik zehaztea eta edukiak hautatzeko irizpide argiak izatea.

Helburua hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzea helburua baldin bada, aukeratutako edukiak egokiak izan behar dute, ikasleek testu zuzenak, kohesionatuak eta baliagarriak ekoitzi ahal izateko eta azpigarritasun soziolinguistikoa, diskurtsiboa, estrategikoa eta linguistikoa hobetu ahal izateko.

Ikasgaiaren plangintza egiterakoan eta programazioa egituratzerakoan garrantzizkoa da kontuan izatea hainbat eduki gainerako hizkuntzetan ere berberak edo oso antzerakoak direla, eta hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, oso lagungarri izan daitezkeela atzerriko hizkuntzak ikastean. Haatik, hizkuntzen arteko berdintasunak eta hizkuntza bakoitzaren berezitasunak aintzat hartu behar dira, errepikapenak eta sarri askotan adierazten diren kontraesanak ekiditeko.

Hizkuntza-ikasgaien edukiak, elkarren antzeko direnak behintzat, transferitu egin daitezke hizkuntza batetik bestera. Hori dela eta, edukiak euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntzen artean banantuko dira, eta, behar den neurrian, indartuko egingo dira. Zer esanik ez, hizkuntza-irakasle guztiek plangintza batera egin beharko dute, eta horrek ikasturtean zehar elkarlana egitea dakar.

Nola aukeratu edukiak metodologia aktiboan oinarriturik?

Hizkuntzak lantzeko, gramatika, berez, abiapuntu eta helburu izatea ez dator bat gaur egungo metodologiarekin. Ikasleek era eraginkorrean parte hartzea gura bada, derrigorra da edukiak bestela tratatzea: ikasleengan interesetik hurbilago egon behar dute eta batez ere haien artean esanguratsuak izan. Horrek ez du esan nahi ikasleek gustuko edukiak bakarrik landuko direnik; egungo eta bihar etziko bizitzan beharrezko izango dituztenak ere landu beharko dira, hain gogoko ez izan arren.

Hori dela eta, atzerriko hizkuntzako edukiak aukeratu eta zehaztu egingo dira, erabilgarri, esanguratsu eta praktikoa izan daitezkeen. Beti ere kontuan izango dira ikasleek interesak eta beharrezkoak, horiek erraztuko baitute ikasleek berek parte-hartze aktiboagoa izatea.

Behin helburua zehaztuta dagoenean beste guztia ebatzi beharko da, esate baterako nondik abiatu, zein izango den ikasleen azken ekoizpena, landuko diren dimentsioak (ahozkoa, idazmena, elkarreagina...), erregistroa, eremua (akademikoa edo egunerokoa), testu-tipoa (azalpena, argudioa, narrazioa, deskripzioa...), testu-generoa, garatu beharko diren eduki linguistikoak eta ez-linguistikoak...

Nolanahi ere garrantzizkoa da hizkuntza eta maila guztietan lexikoa, gramatika, sintaxia, morfologia, etabar lantzea, ezinbestekoak baitira edozein hizkuntza erabiltzeko.

5.8. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozkoaren ulermena.

Oro har, eskolak ahaztu samar izan du ahozkoa egunero-egunero lantzea. Hori gertatu da, alde batetik, hizkuntza idatziari lehentasuna emateagatik eta, bestetik, adibide aztergarriak eta eredugarriak biltzeko eta ikasleen ekoizpenak jasotzeko zailtasunagatik. Egun, IKTek eta *web 2.0k* aplikazioek trebetasun hau lantzeko baliabideak eskueran jartzen dituzte, ahozko testuak grabatzeko, entzuteko eta jasotzeko.

Zer egin ahozkoaren ulermena lantzeko?

- **Kontuan hartu ahozko testuen berezitasunak.**

Ahozko testuak ulertzeko prozesua idatzizko testuak ulertzeko prozesuaren antzekoa da; hala ere, baditu zenbait berezitasun, batez ere, ahozko testuen informazioa denbora errealean prozesatu beharra dagoelako. Gainera, zaratak, distortsioak eta interferentziak zaildu egiten dute ulertzea. Grabatutako testuei dagokienez, berriz, zenbat eta solaskide gehiago izan eta haien ahotsa zenbat eta antzekoagoa izan, are zailagoa da solaskide bakoitza identifikatzea eta haren hizkera ulertzea. Beste kontu hauek ere zailtzen dute ulertzea: diskurtsoak gainjartzeak, murrizketa fonetikoak, azentua ez ezagutzeak, bizkor hitz egiteak, intonazio monotonoa izateak, behar bezain ozen ez hitz egiteak, etab.

- **Helburuaren garrantzia azpimarratu.**

Entzute-jarduera zentzua eta helburua emango dion testuinguruan txertatu behar da.

Entzun helburu jakin batekin entzuten da: esaten denaren funtsaz jabetzeko, informazio espezifiko lortzeko, esaten dena zehatz ulertzeko, informazio inplizituaz ohartzeko..., eta helburu horiek estrategia jakin batzuk erabiltzea eskatzen dute.

Bestalde, entzute-jarduerak ez dira modu isolatuan proposatu behar, baizik eta sekuentzia didaktikoen edo komunikazio-proiektuen baitan; izan ere, ahozkoaren ulermen-jarduerak gainerako trebetasunak lantzeko jarduerari lotuta joan ohi dira: ahozko azalpen batean, ikasleek informazioa erabiliko dute; edo ulertzen dutenaren inguruko hipotesiak egingo dituzte. Helburuak, zertarako entzuten ari garen jakiteak, alegia, erabateko garrantzia du; izan ere, helburu bat edo beste izateak gidatu egiten du entzute-lana.

- **Jarrera baikorrak sustatu.**

Funtsezkoa da jarrerak lantzea. Hizkuntzarekiko jarrera baikorrak sustatu behar dira ikasleek senti dezaten beharrezkoa dela hizkuntza eta hizkuntza-erregistro ugari

ahozko testuak ulertzea beharrezkoa dela. Atzerriko hizkuntzen kasuan Internetek, musikak eta abarrek aukera ezin hobe ematen dute hizkuntza-erregistroak arakatzeko, batik bat ikastetxetik kanpo. Era berean, ikasleen arteko errespetu- eta lankidetzaren giroa eta ikasleen aniztasunarekiko jarrera baikorrak sustatu eta landu behar dira, ikaskideen ahozko ekoizpenak entzun eta baloratzeko unean.

Sarri, entzute-jarduerak frustazioa sortzen dute ikasleengan ez dutenean testua goitik-behera ulertzen ez dutenean. Jarrera desegoki hori ekiditeko, zaie jardueraren xedea den gogora arazi egin behar zein, eta, horrekin batera esan behar zaie, hori betetzea nahikoa dela.

- **Kontuan izan irakaslea hizkuntza-eredua dela.**

Irakaslea hizkuntza-eredua da ikasleentzat, batez ere atzerriko hizkuntzen kasuan. Irakaslea bera izaten da eredurik hurbilena, eta, askotan ikasleen erreferentzia ia bakarra. Beraz, hizkuntzaren ezaugarri hauek izan behar ditu kontuan: jarduteko era, estiloa, erregistroa, esateko moduak, aberastasuna, egokitasuna eta zuzentasuna zaindu behar ditu, *classroom language*ari aparteko garrantzia eman behar dio.

- **Entzute prozesuari lotutako estrategiak landu.**

Ahozkoaren ulermen-prozesuak, idatzizkoarenak bezala, hiru une desberdin ditu eta horietako bakoitzak estrategia bereziak eskatzen dizkie ikasleei.

Entzun aurretik:

- Entzungo duten testuaren gaia aipatzea.
- Aurkituko dituzten zenbait zailtasunen inguruko argibideak ematea.
- Aurrezagutzak gelan plazaratzea.
- Entzuketaren helburua azpimarratzea.
- Argi uztea zer egingo duten entzuketatik jasotako informazioarekin.
- ...

Entzun bitartean:

- Entzuketaren prozesuan informazioa eta datuak jasotzeko teknikak erabiltzea: oharrak idatzi, txantiloiak bete, lehendik planteatutako galderak erantzun...
- Hipotesiak adierazi eta egiaztatu.
- Entzuketaren prozesuan sortutako zalantzak argitzea eta zailtasunei erreparatzea.
- ...

Entzun ondoren:

- Entzundakoa interpretatzea eta egiaztatzea.
- Informazioa berrantolatzea, eskemen edota, laburpenen bidez.
- Informazioa erabiltzea.
- ...

Nolako testuak entzun behar dituzte ikasleek?

Ahozko testuak ulertzea hizkuntzakoak ez diren gainerako arloetara eta ikasgelatik kanpoko jardueretara ere zabaldu behar da; izan ere, ahazko hizkuntza nonahi dago, nonahi topa daiteke eta nonahikotasun hori baliatu behar da.

Hizkuntza-saioetan, ahazkoaren ulermen-jarduerak gainerako hizkuntza-trebetasunekin batera landu behar dira, komunikazio-proiektu zabalagoetan. Horietan, ahazko testu errealak zein egokituak eta ikasleen adinarekin bat datozenak proposatu behar dira; ikasleek ulertzeko modukoak baina, aldi berean, erronka kognitiboa eskatzen dutenak.

Bestalde, helburuari, erregistroari, euskalkiari, euskarriari, testu-tipologiari eta testu-generoari dagokienez, testuek askotarikoak izan behar dute.

Ikasgelatik kanpo, berriz, jarduerak askotarikoak planifika daitezke ahazkoaren ulermenari laguntzeko: bisita gidatuak, antzezlanak, errezitaldiak eta lehiaketak antolatu nahiz haiek ikustera joan. Horrekin batera, atzerriko hizkuntzaren eta horren kulturaren zein ikasleen intereseko beste edozein gairen inguruko hitzaldiak eta solasaldiak egin daitezke ikastetxean bertan.

Hizkuntza-eskoletan zein gainerako arloetan antolatuko diren bisita gidatuak ere har daitezke ahazko testu errealen iturriztat: planetariora edota, museo eta erakusketetara joatea eta ikasleek entzungo dituzten ahazko azalpen formalen inguruko jarduerak prestatzea.

Eskola-irratia ere baliabide ezin hobea da ikasleek ahazko testuak sortu eta entzun ditzaten ikastetxeko beste hizkuntzekin batera. Gainera, teknologia berriek baliabide askotarikoak eta eskuraerrazak proposatzen dituzte gaur egun, ikasleek entzumen jarduerak egin ditzaten, teknologia berriek baliabide anitzak eta eskura errazak proposatzen dituzte gaur egun; besteak beste *podcast*a eta bideoak. Horrezaz gain, aukera ematen dute beste leku bateko ikasleekin harremanak izateko: *e-twinninga*, *webinarrak*, *chatroomak*.

Nola entzun? Zenbait aholku.

- Ikasgelako giroa zaindu egin behar da, ezinbestekoa den isiltasuna, giro lasaia, besteekiko errespetua ...
- Entzute-saioen iraupena kontrolatu egin behar da, ulermenak eskatzen duen tentsioari eusteko.
- Diskurtso osotik zein zatietatik abia daiteke, inferentziak egiten laguntzeko: elkarrizketa zati batetik abiatu, solaskideak zertaz ari diren asmatu, zer gairen inguruan ari diren adierazi...
- Entzunaldian zehar, ikasleen artean banatu daiteke lana: batzuek ideia nagusiak atera ditzakete; beste batzuek edertasuna ematen duten elementuak, hitz zailak, antzemandako...
- Ahazkoaren ulermenari lotutako ebaluazio-adierazleak kontuan izan behar dira, ikasleei jakinarazi behar zaizkie, eta, ahal den neurrian, haiekin adostu.
- Ebaluazioari lotuta, bestalde, entzuketa-prozesuaren inguruan hausnartzeko txantiloiak eta kontrol-orriak erabil daitezke.



5.9. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozko adierazpena.

Ahozko adierazpenak hau guztia hartzen du barne: ikasleak testuak ahoz ekoizteko behar dituen trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarriko multzoa. Halako testuak beharrezkoak dira ikasleak hainbat arlotan (pertsona-mailan, eskolan, gizartean, lanesparruan...) garatzeko.

Egungo gizartean, uka ezina da ahozko komunikazioak pisu handia duela; izan ere, egun, hizkuntza mintzatua menderatzeak erabateko garrantzia du hainbat esparrutan, hala nola lan munduan, gizarte-harremanetan, harreman pertsonaletan...

Eskolak, ahozkoaren praktika sistematikoa alde batera utzi, eta idatziaren alde egin izan du sarritan. Izan ere, hizkuntza mintzatua lantzeak aparteko zailtasunak ditu: alde batetik ikasleen ekoizpenak jaso egin behar dira, eta, bestetik testuingurua testuak (espazioa, denbora, rolak...) egoki kudeatzeko ahaleginak egin behar dira. Oraintsu arte ahozkotasuna landu denean, ez da era esanguratsuetan egin sarri askotan -entzun eta errepikatu adibidez-. Egun, ordea, komunikazio- eta interakzio-gune bihurtu behar du ikasgelak: ikasleek azalpenak eman, negoziatu, iritziak adierazi eta horiek guztiak partekatuko dituzten tokia; baina, horretarako elkarrekiko errespetua eta lankidetzaren giroa sustatu behar da, eta ikasleei hitz egiteko aukera eta denbora eskaini behar zaie.

Nolako ahozko testuak landu behar dira?

Eskolan, ikasleek batez ere ahozko erabilera formalak jorratuko dituzte. Izan ere, eskola erabilpen-eremu formala da, eta bertan egiten diren ikasteko jarduerak ere formalak izaten dira: adibidez, irrati-kronikak, ahozko azalpenak, albisteak, olerkiak... Erabilera formal horietan ahozko azalpenak leku garrantzitsua izan behar du ikaskuntzaren transmisioari lotutako generoa baita arlo eta irakasgai guztietan landu beharrekoa.

Hala ere, atzerriko hizkuntzari dagokionez, hizkuntzak gizartean presentzia urria badu, erabilera informalek ere (pasadizoak, gertaerak, esperientziak, abestiak...) lekua izan behar dute ikasleek gizarteak eskaintzen ez diena eskolan jorra dezaten eta hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna gara dezaten.

Ahozko testuak ekoizteko prozesua testu idatziaren prozesuaren antzekoa da (testuinguruan ezarri, planifikatu, testua egin...). Baina ahozko testuek badituzte berriazko ezaugarriak esate baterako, elementu paralinguistikoak (kinesia, keinuak, ahotsaren tonua, isiluneak, asertibitatea azalaratzea...). Elementu horiek ere sistematikoki landu eta ebaluatu behar dira.

Ikasgelan ahozko hizkuntza landu arren, askotan falta izaten da prozesuaren urratsak sistematikoki lantzea. Ahozko azalpenak egiteko edota beste edozein ahozko genero gauzatzeko ibilbide zehatz bati jarraitu behar diote ikasleek.

Atzerriko hizkuntza arloko programazioetan, beraz, mintzamena garatzen laguntzeko atazak eta sekuentzia didaktikoak edo proiektuak proposatuko dira eta ikasleek ahozko testuaren ekoizpenari lotutako urratsak landuko dituzte: planifikatu, testua egin, errebisatu...

Ahozko adierazpena lantzeko zer egin behar da?



- Ikasleek ekoizteko behar duten ahazko testuaren arabera, ahazko testu errealen ereduak entzutea eta era askotako testu-generoak aztertzea, xedea, erabilera-eremuak, hizkuntza-erregistroa, euskalkia... zehazteko. Helburu hori lortzeko, IKTeK eredu ugari jartzen dituzte eskura: irrati-webguneak, telebista-guneak eta bideo-guneak, adibidez.
- Ahazko testuak planifikatzean, komunikazio-egoeraren arabera egokitzapena egitea: kontuan hartzea hartzailearen ezagutzak eta interesak, ahazko testuaren xedea, denbora, tokia, erabili beharreko erregistroa... Tresna gisa, planifikazio-orriak erabili daitezke.
- Ahazko testua egituratzea: aurreko parametroetan oinarrituta, informazio egokia bilatu, hautatu eta eskemen bidez antolatzea.
- Proba gisa, saiakerak egitea eta tarteko ebaluazioa gauzatea, behin betiko saioa bideratzeko.
- Ahazko ekoizpenari laguntzeko eskemak egin eta oharrak idaztea, esan behar dutena buruz errepikatzea mugatu gabe.

- Ahozko aurkezpenak eta azalpenak egiteko ikus-entzunezko baliabideak eta IKTak erabiltzea, hala nola irudiak, horma-irudiak, powerpointak, bideoak... bai euskarri bai ekoizpen gisa.
- Prozesuan zehar, ahozko ekoizpenari lotutako estrategiak abiaraztea: mezua ulergarriago egiteko prozedurak; gaiari eusteko eta markatutako ildoari jarraitzeko estrategiak; urduritasuna saihesteko moduak, keinuak, gorputzaren mugimenduak, intonazioa eta prosodia...
- Ahozko jardueretan oso garrantzitsua da ikasle guztien partaidetza bermatzea, ikaskideen jarduna ebaluatzea oso baliabide eraginkorra da ikasle guztiak prozesuan inplikatzeko eta denen gogoeta bultzatzeko. Igorlearen ahozko ekoizpena balioestean, partaide sentitzeaz gain, igorleak ikaskideen ebaluazioaren bidez ahozko jarduna hobetu ahal izango du. Beharrezkoa da gogoeta egitea eta ebaluatzea, hizkuntza garatzen laguntzeko eta edozein prozesu burutzeko.


5.10. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: interakzioa.

Ahozko interakzioa hizkuntzaren erabilerekin dugun lehenengo harremana eta harremanik ohikoena da. Hala ere, hezkuntzan horri ez zaio behar besteko kasurik egin, nahiz eta interakzioa menderatzea funtsezkoa izan ikasleen gizarte-bizitzan, ikasketetan eta, gerora, lanbide-bizitzan.

Hain garrantzitsua da interakzioa ezen Europako Erreferentzia Markoak beste trebetasun baten gisara, ahozko diskurtso monogestionatuetatik bereizita, deskribatzen duen. Interakzioan, ikasleek hitzun eta entzule gisa dihardute, txandaka, solaskide batekin edo gehiagorekin, ahozko elkarrizketa bat osatzeko, eta elkarlanaren printzipioari jarraituz esanahiak negoziatzen dituzte.

Ahozko elkarreragina, nagusiki, aurrez aurrekoa da eta horrek ezaugarri aniztasuna dakarkie testuari eta hizkuntzari baita ezaugarri paralinguistikoen eta testuinguruko seinaleei ere.

Interakzioa beste trebetasunekin gertatzen den bezala, erabilera gidatuaren eta etengabeko praktikaren bidez garatzen da; ez da bat-batean eta une jakin bati lotuta ikasten den trebetasuna. Beraz, etapa guztietan landu behar da ikastetxe mailan eta arlorik arlo. Bestalde, interakziorako bideak eta aukerak ematen dituzten egoera komunikatiboak proposatu eta graduatu behar dira, zailtasun- eta konplexutasun-mailaren arabera.



Zer egin ikasgelan?

- **Interakzioa ikaskuntzaren bultzatzaile bihurtu.**

Interakzioa, duen alderdi sozialaz eta pertsonalaz gain, ikastea ahalbidetzen duen funtsezko trebetasuna da; ikasle eta irakasleen arteko elkarriketaren bidez nahiz ikasleen elkarlanaren eta elkarriketaren bidez egiten da. Interakzioak ezagutza, esanahia eta iritziak eraikitzen laguntzen du.

Horregatik, beharrezkoa da ikasgelan elkarriketa sustatzea bai edukien ulermena bai proposatu diren jardueren ulermena egiaztatzeko. Izan ere, askotan, ikasgelan ezartzen den komunikazioaren estiloa norabide bakarrekoa izaten da eta ez du erantzunik eskatzen. Alderdi hori erabat lotuta dago -oinarrizko gaitasunen garapenaren markoan- irakasleak izan behar duen rol aldaketari.

Funtsezkoa da talde-lana proposatzea eta lan hori eraginkortasunez kudeatzea.. Helduekin gertatzen den bezala, taldeka lan egiteak luzaroan praktikatzea eta ikastea behar izaten du; horregatik, horrelako proposamenak ikastetxeko klaustroan erabaki behar dira, ikasleekin lan egiteko teknika hori ohiko aizan dadin.

- **Testu poligestionatuak (debateak, mahai-inguruak, elkarriketak...) proposatu.**

Elkarlana interakzioaren oinarrizko printzipioa da, komunikatzeko nahirik gabe ez baitago komunikaziorik. Hori dela eta, komunikazio egoera aproposak, egoera errealei lotuak edota horien adierazpen errealeak izan daitezkeenak sortu beharko dira ikasgelan, ikasleen interesa piztu eta haiek, ahalik eta modurik eraginkorrenean komunikatzeko beharra senti dezaten. Horretarako, irakasleak eta ikasleak adostu egingo dituzte gaiak interesen eta beharrezan araberak. Helburuetako bat, gaiak ikasleek berek kudeatzea da, hori autonomia trebatuz, mailarik-maila eta astiro-astiro lortuko da.

Bestalde, ikasgelan interakzioari lotutako jarduerak gauzatu eta komunikazioa ahalbidetzeko, konfiantza eta elkarrekiko errespetu giroa lortu behar da . Besteak beste, estrategia gisa, kontratu didaktikoak erabil daitezke, eta, bertan, zer onartuko den eta zer arau ezarriko den adierazi.

Halaber, komunikabideetatik hartutako ereduak ikustea eta entzutea (*realityak*, debateak...) baliabide aproposak izan daitezke, errentagarritasun didaktikoari begira; izan ere, batzuetan, batere eraginkorra ez den interakzioaren adibide ezin hobek izanik, interakzioa bera hobetzen laguntzen dute, jakina.

Interakzioari lotutako jarduerak atzerriko hizkuntza irakasgaiaren hainbat eduki lantzean planifika daitezke. Esaterako, testuak lantzean eta edozein liburu irakurtzean, taldean irakurtzea (tertulia dialogikoa) proposa daitezke; horrela, interakzioa eraginkorra eta erregulatua izango da.

Beharrezkoa da, bestalde, ikasleen parte-hartzeak aldiro grabatzea. Ikasleen interakzioei behatuz gero, zailtasunak ikusi eta arazoak aztertzeaz gain, ikasleek beren jardunaren gainean hausnartu ahal izango dute izan ere, ebaluatzeak eta hizkuntzaren erabileraren inguruko gogoeta egiteak erabateko garrantzia dute hizkuntza hobeto erabiltzeko orduan. Koebaluazio jarduerak egin daitezke (irakasleak ikasleekin, ikasleak elkarrekin) aurretiaz prestatutako kontrol-zerrendak erabiliz.

Bideo-grabazioek eta irratigintzak ez dute tresneria berezirik behar: argazki-kamera edo bideo-kamera, mikrofonoak, ordenagailua eta software eskuraeraza, besterik ez. Tresneria sinplea baina behar-beharrezkoa, gaur egun, ikasgelan ahozko hizkuntza eraginkortasunez landuko bada.

Interakzio-diskurtsoak, batzuetan, ahozkotik idatzizkora pasatu behar izaten dira esaterako, norbaiti elkarrizketa egin eta grabatu ondoren, edo elkarrizketa batean azaldutakoa laburtzean... Lanketa horrek gogoeta-lana egitera behartzen du eta ahozko interakzioari berari lotutako ezaugarriez hausnartzera.

- **Interakzioa erregistroak eta aldaerak lantzeko baliabideetat hartu.**

Gehienetan, ikasleek eskolan soilik entzun, hitz egin eta lantzen dute atzerriko hizkuntza eta sarri, partaide ezagunekin eta gai arruntenetan ere problemak izaten dituzte hitz egiterakoan. Problema horiek linguistikoak dira asko, eskolaz kanpoko gai arruntekin erlazionatutako hiztegia erabiltzekoak beste batzuk, baina baita esapide "jatorrei" eta eguneroko esamoldeei dagozkienak ere. Beraz, halako ikasleekin hauekin eztabaida ez-formala eta elkarrizketa arrunta landu beharko dira gelan. Horretarako, oso lagungarria izan daitezke dakizkiten hizkuntzetan erabiltzen dituzten bitartekoak atzerriko hizkuntzara transferitzea.

5.11. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: irakurmena.

Zer egin irakurketa lantzeko eta ikasleen irakurtzeko gaitasuna garatzeko?

XXI. mendean, informazioaren eta ezagutzaren mendean, modu egokian irakurtzen ez jakiteak edota irakurtzeko gaitasuna behar bezain ongi garatuta ez izateak gizarte baztertua izateko arriskua dakar, horrek norbanakoaren gizarte-, lan- eta pertsona garapena oztopatzen baitu.

Irakurtzea testuaren deskodetze hutsa baino askoz prozesu konplexuagoa da; izan ere, hau guztia eskatzen du: abilezia kognitibo konplexuak erabiltzea, munduaren ezaguera eta hizkuntzari lotutako ezagutzak abiaraztea eta irakurketa praktikatzat hartzea. Alderdi horiek guztiak berariazko landu behar dira ikasgelan.

Irakurle gaituak izateko ikasleek ondokoak egiteko gauza izan behar dute honetarako:

- Testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
- Informazioa berreskuratzeke.
- Testua interpretatzeko.
- Irakurketan zehar ulermen-arazoak detektatzeko eta horiek konpontzeko.

Eta jarduera hauek egiteko:

- Informazioa erabiltzeko eta, horrela, aurreikusi den helburuari eusteko.
- Irakurritakoaren inguruko balorazio kritikoa egiteko.
- Norberaren ezagutzetatik abiatuta, iritzia adierazteko .
- Laburtzeko, eta buru-mapak eta eskemak egiteko.

Nola landu irakurketa?

Irakurketari lotutako jarduerak zentzua eta helburua emango dien testuinguruan txertatu behar dira, ezin da ahaztu irakurketa curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan dagoen hizkuntza-trebetasuna dela.

Xede askorekin irakurtzen da: irakurketaz gozatzeko, informazio zehatza eskuratzeko, testuaren ikuspegi orokorra izateko, ikasitakoaren inguruko kritika egiteko edo berrikusteko, ezaguna den informazioa zabaltzeko..., horregatik, helburu bakoitzaren araberako estrategiak baliatu behar dira.

Irakurketa-jarduerak sekuentzia didaktiko konplexuagoen barruan txertatu behar dira; izan ere, ulermen-jarduerak estu lotuta daude beste hizkuntza-trebetasunak lantzeko jardueri: irakurri egiten da, gero idazteko; irakurri egiten da, irakurritakoaz jarduteko; irakurri egiten da, ahozko azalpena egiteko ...

Irakurketa-prozesuak irakurritakoa ulertzeko eta interpretatzeko estrategiak garatzea eta lantzea eskatzen duten hiru une hauek ditu:

Irakurri aurretik:

- Irakurketaren helburua zehaztea. Zertarako irakurriko den zehaztea.
- Hasieran testuarengandik espero dena aktibatzea.
- Testuaren edukiaren inguruan aurretiazko ezagutzak aktibatzea.
- Aurreikuspenak eta hipotesiak adieraztea, formatuaren ezaugarriari erreparatuz, lokailuei erreparatuz.
- ...

Irakurri bitartean:

- Hipotesiak etengabe adierazi eta egiaztatzea.
- Irakurritakoaren gaineko galderak egitea.
- Testuak sorrarazten dituen zalantzak argitzea. Ulermen-arazoak konpontzea.
- Irakurritako atalen edukia laburbiltzea.
- ...

Irakurri ondoren:


- Irakurritakoa laburpen, eskemen, buru-mapen bidez berrantolatzea.
- Irakurritakoa berrerabiltzea eta ezagutza berria eraikitzea.
- ...

Beraz, irakurketari lotutako estrategia horiek garatzeko, irakurketaren helburura, hautatutako testu-generora eta ikasleen mailara egokitutako jarduera zehatzak eraman behar dira ikasgelara.

Irakurketa banakako eta isileko jarduera gisa zein ikasleek elkarrekin partekatuko duten jarduera gisa landu behar da. Bai bata, bai bestea egokiak dira irakurketaren helburuak lortzeko.

Banakako irakurketa isila taldean irakurtzearekin osatu eta aberasten da. Irakurketa dialogikoan, ikasgelan dauden partaideak (ikasleak, pertsona helduak, irakaslea, beste ikasle-irakasle batzuk...) lankidetzan aritzen dira testua ulertzeko eta interpretatzeko, eta galderak, iruzkinak, iradokizunak adierazten dituzte eta testua irakurtzean bizi eta sentitutakoa kontatzen. Irakurtzeko modu biek elkarri laguntzen diote.

Bestalde, irakurtzeko ohituraren garatzea, Hezkuntza Sistemaren lehenetsuneko helburua denez, jakintzagai guztietan islatu behar da. Orientabide hauek kontuan harturik antolatu daitezke irakurtzeko ohitura garatzeko jarduna:



Zer irakurri?

Ikasleak trebatu egin behar dira honetan: eskola- eta gizarte-eremuetan erabilgarriak diren testuak eta garapen pertsonalerako lagungarri izango zaizkien testuak ulertzen eta interpretatzen.

Horretarako, ezinbestekoa da testu-bankua osatzea: testu errealak eta, testu-generoari, euskarriei, erabilpen-eremuari eta euskalkiei dagokienez, askotariko testuak, testu jarraituak eta ez-jarraituak izango dituen testu-bankua. Horrekin batera, ikasgelan gauzatuko diren komunikazio-proiektuen gaiei lotutako testuak erabiliko dira, baita beste ikasgai batekoak eta ikasleen interesekoak ere.

Literaturak ere hainbat testu-egitura eskaintzen ditu: olerkiak, antzerki-lanak, narrazioak, eleberrak, ipuinak, mikronarratioak, komikiak, nobela grafikoak, zinema-gidoiak... Halaber, egungo gizartean, literaturaren baliabideak erabiltzen dituzten testu askotarikoak bizi dira elkarrekin, hala nola, publizitate-testuak, kazetaritza-testuak, multimedia... Heziketa literarioak horiek guztiak ulertzen eta interpretatzen laguntzen du.

Bestalde, Internet liburutegi digital handia eta garrantzitsua bihurtu da egun, etengabe gaurkotzen da, eta testuak bilatzeko eta hautatzeko zereginetan laguntzen du. Beraz, komeni da testu digitalen helbideak aukeratzea. Testu digitalek, baina, abilezia bereziak lantzea eskatzen dute; izan ere, hipertestuaren egitura ez da lineala, adarkatua baizik, irakurtzeko ibilbide eta aukera asko eskaintzen ditu. Horregatik, irakasleek irakurle ez gaituei lagundu egin behar diete irakurtzeko ibilbidea zehazten, irakurketaren helburuaren arabera.

Hizkuntza irakasleak gainerako arloetan erabiltzen diren eta eskatzen diren testu moten berri izan behar du, eta hizkuntzazko irakasgai gisa erabili: laborategiko txostenak; landare, animalia edo onddoei buruzko gidak; lan monografikoak; helburu jakinekin egiten diren laburpenak; pertsonaien biografiak... Horrek, atzerriko

hizkuntzako irakasleari lana aurreratzen lagunduko dio, eduki tematikoa (lexiko berezia, kontzeptuen ierarkizazioa...) beste arloetatik hartzen baitu.

5.12. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: idazmena.

Egungo gizartean, idaztea hau da: hizkuntza idatzia askotariko komunikazio-egoeretan –bizitza pertsonalari, lanari eta gizarte-esparruei zein ikasketei lotutako komunikazio-egoeretan, hain zuzen ere– erabiltzen ikastea. Diskurtso idatziak ugari dira, eta halako testuen erabilera, askotarikoa: batzuetan, praktikoa (oharrak, gutunak, kontratuak, txostenak, eskabideak...) eta, besteetan, artistikoa (asmo literarioko testuak, estilo-ariketak...).

Horretaz gain, idaztea ezinbesteko tresna da egungo gizarte digitalizatuan, askotariko komunikazio elkartrukeetan parte-hartzea ahalbidetzen duten idazteko era eta genero berriak sortu dira: posta elektronikoa, txatak, blogak, wikiak, foroak... ;

Halaber, nabarmendu behar da idazteak garrantzi handia duela edozein ikasgai ikasteko prozesuan. Prozesu horretan, idatzi egin behar izaten da, besteak beste, irakurritakoa eta entzundakoa (galderak, oharrak, beste irakurgai batzuekiko erreferentziak, laburpen txikiak, gidoiak eta eskemak...) jasotzeko; ikasitakoa (laburpena, eskema...) antolatzeko, eta antolatutakoa berrantolatu eta eraldatzeko...; horrela barneratzen dira ezagutza berriak.

Idazteak berebiziko garrantzia dauka ezaguera eta pentsamendua antolatzeko eta adierazteko orduan; izan ere, idaztean, bi ahalmen horien arteko interakzio-prozesua ematen da. Horregatik, egoki eta zuzen idaztea ahalbidetzen duten ezagutzak, estrategiak, abileziak eta teknikak irakastea da eskolak duen helburu nagusietako bat. Egiteko hori irakasle guztiei dagokie, eta ez soilik hizkuntza-irakasleei.

Bestalde, idazketa-prozesua lantzerakoan, kontuan izan behar da hizkuntza-trebetasunak (mintzamena, entzumena, irakurmena eta idazmena) ez direla modu isolatuan landu behar, baizik eta elkarri lotuta: hitz egin eta irakurri egiten da, gero idazteko, eta idatzi egiten da, gero irakurtzeko edota idatzitakoaz hitz egiteko.

Garrantzizkoa da, gainera, irakurketa ikasleen idazmena hobetzen laguntzeko baliabide eraginkortzat hartzea. Imitatuz eta sormenezko berregiteak eginez asko ikas daiteke asko baitira testuaren ulermenaren eta ekoizpen-prozesuen arteko antzekotasunak. Beraz, irakurtzea eta idaztea lan-proiektuen barnean txertatu behar dira.

Nola landu idazketa?

Ikasgelan landu behar den idazketa prozesuan oinarriko printzipio hauek hartu behar dira kontuan:

- Idazketa-prozesuaren konplexutasuna. Ikasleei ikusarazi behar zaie idaztea oso prozesu konplexua dela eta, horregatik, idazten idatziz –asko idatziz– ikasten dela; izan ere, eskolaldiko urteetan eta bizi osoan garatzen den trebetasuna da idazmena. Beraz, ikasleen interesetatik gertuko atazak eta proiektuak proposatu behar dira, erronka kognitiboak, hizkuntza-mailakoak nahiz komunikazio-mailakoak, eskatuko dizkietenak baina.
- Idazketa-proiektua komunikazio-egoera batean txertatu behar da. Ikasleek zerbaitengatik eta zerbaiterako idatzi behar dute. Beraz, ikasleen ekoizpenak eskolako ohiko egoeretan txertatu behar dira, eta idazteko egoerak eta uneak dibertsifikatu: aldizkari eta egunkarrietan idaztea, ikaskideen arteko trukeetan parte

hartzea, Administrazioari edo hezkuntza-erakundeei idaztea, beste ikasgai batzuetako lanak idaztea, sarean parte hartzea...

- Askotariko komunikazio-egoerak proposatzea. Funtsezko tresna da hori era askotako testu-generoak lantzeko eta, horretaz gain, ikasleei aukera emateko ikasgelan zehaztu diren idazketa-proposamenak (testuaren helburua, hartzaileak, edukiaren egitura, hizkuntza-maila eta erregistroa) modu egokian kudeatzeko.
- Garrantzitsua da ikasleei erreferentziatzat hartuko dituzten testu-eredu errealak aurkeztea. Horien bidez, komunikazio-egoera irudikatuko dute, eta testuaren egokitasuna kontuan hartuko. Testuaren egituratzen eta planifikatzen ikasteko bestelako testuak behar dira; besteak beste, kontsultatzeko eta, bertatik informazio hori berrerabiltzeko aukera eskaintzen dutenak, edo egitura eredutzat hartzeko edo hizkuntzari lotutako arazoak konpontzeko balio dutenak.
- Idazketa-prozesuari lotutako ikaskuntza-jarduerak bi helburu izan behar dituzte: helburu diskurtsiboa eta ikaskuntzari lotutako berariazko helburua. Eesaterako, iritzi-artikulua idazteak bi helburu ditu: bata, egunkarian, aldizkarian edo ikastetxeko blogean argitaratuko den testua sortzea eta, bestea argudiatzen ikastea (tesia zehaztu eta hori defendatzeko argudioak garatzea, argudiatzeari lotutako lokailuak erabiltzea...).
- Irakurtzeko eta idazteko egoerak solaskideekin –ikaskideak elkarrekin, irakasleak eta ikasleak elkarrekin, pertsona helduekin...– interakzioan ahalbidetzea. Hartara, idazten hasi aurretik, ideiak partekatu egingo dira; iritziak, kontrastatu eta eztabaidatu, eta egitekoa, berregokitu. Gero, idazketa-prozesuan, idazkiak irakurri, eta, besteak balioetsi eta interpretatu ondoren, galderak egingo dira, eta zalantzak adieraziko. Akordioak eta desadostasunak bitarteko, lankidetzari esker, testuak idatzi egingo dira. Azkenik, idatzitako testuak, ikasgelako kideekin eta gainerako ikaskideekin partekatu, eta jakitera emango dira sarean, etxekoan artean, lagunuen artean, beste irakurle batzuen artean...
- Ikasgelan giro aproposa eta egokia sorrarazi behar da. Ikasle guztiek idatzi dituzten testuei behar besteko garrantzia emateko eta denak balioesteko, testu bakoitzaren alderdirik onenak azpimarratu behar dira, eta idazteak emozioak, sentimenduak, ideiak eta pentsamenduak adierazteko duen garrantziari indarra eman behar zaio. Testuinguru horretan, irakasleak ere bere testuak idatzi eta aurkeztu behar litzuzke, interakzioa sustatzeko.

Idatzi aurretik:

- Elkarreragina sustatzeko jarduerak -gero idatziko den testuaren plangintza egiteko informazioa eskaintzen dutenak- proposatzea.
- Ereduak eskaintzea testuaren ezaugarriak aztertzeko.
- Testuaren ezaugarriak eta egitura diseinatzea.
- Idatziko dena antolatzea.

Idazten ari diren bitartean:






- Kontrol zerrendak erabiliz, idatzitakoa eta aurrez planifikatutakoa bat datozela egiaztatzea.
- Zirriborroak irakurtzea. Hori irakasleak zein ikaskideek egin dezakete, zuzenketa kodeak eta kontrol-zerrendak erabiliz.
- Iradokizunen arabera zirriborroa zuzentzea.
- Azken bertsioa idaztea.

Idatzi ondoren:

- Lana Portafolioan edota ikasleen ekoizpenak gordetzeko datu-bankuan gordetzea.
- Azken ekoizpena argitaratzea.
- ...

5.13. Ebaluazioa.

Ikasteko ahalmena erabat lotuta dago auto-erregulatzeko ahalmenari, hau da, ikasketa-helburu bat lortzeko jarduerak planifikatzen jakiteko ahalmenari. Horregatik, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapena, ikaskuntza aktiboa eta ikasten ikasteko gaitasuna garatzeko egiten den ebaluazioa, honetan datza batez ere: autoerregulatzeko jakitean.

ZER?		Hizkuntzen erabilera errealak
ZERTARAKO?		Zailtasunak eta aurrerapenak identifikatzeko eta prozesua egokitzeko
NORK?		Ikasleak berak, ikaskideek, irakasleak
NOIZ?		Prozesuan zehar
NOLA?		Askotariko tresnak erabiliz

Ikasleek hizkuntzaren erabiltzaile gaituak izateko atal hauek kontrolatu behar dituzte:

- Helburua, hau da, egiten dutenaren xedea, zertarakoa.
- Helburua bideratzeko abiarazi behar den prozesuaren atalak, hurrenkera eta planifikazioa.
- Egiten dihardutena ondo betetzen ari diren ala ez jakiteko irizpideak.

Ebaluazioa autoerregulazioan oinarritzeak zuzen eragiten du alderdi guztietan.

Zer ebaluatu?

Hezkuntza-etapa bakoitzerako hautatu diren hizkuntza-erabilerak dira ebaluazioaren irizpide, eta egiten jakitea da ebaluazioaren elementu erabakitzaila. Beraz, ikasleek erakutsi behar dute komunikazio-egoera bati modu eraginkorrean erantzuteko gauza direla: eskari-gutuna idazteko, albiste baten esanahia eta zentzua ulertzeko, gai bati buruzko ahozko azalpena egiteko...

Ulermen- eta ekoizpen-prozesuen menderatze maila da ebaluazio-jardueren ardatza, eta horren arabera ezarri behar dira kalifikazioak. Kontzeptuzko edukiak, ordea, osagarriak dira, bai ebaluatzeko, bai kalifikatzeko orduan.

Atal hauek ebaluatu eta islatu behar dira kalifikazioetan, ikasleak hizkuntzarekiko duen jarrera eta ikasketa-prozesuan erakutsitako portaera: autonomia izatea, elkarlanean ikastea, bakoitzak zein besteez egindako lanen balorazioetan parte hartzea...



Noiz ebaluatu?

Ikaskuntza eraginkorra izateko, ebaluazioa sekuentzia didaktikoaren hasieran bertan agertu behar da. Beraz, hasieran ere proposatu behar dira ebaluazio-jarduerak, ikasleek unitatean zehar landuko duten testu-generoaren inguruan zer dakiten ikusteko eta aurrezagutzak azaleratzeko.

Jarduera horiek honela planteatu daitezke: galdetegiak eta gidatutako eztabaidak eginez, aurretiko testu bat idatziz... Hasierako ebaluazioak, beraz, baliagarria izan behar du lan-plana egokitzeke, hala behar izanez gero.

Ikaskuntzari begira, prozesuaren ebaluazioa da ebaluaziorik esanguratsuena, prozesuan zehar azaltzen diren zailtasunak antzemateko balio duelako eta horiei irtenbidea emateko baliagarria delako. Horrek sekuentzia didaktikoko jarduera batzuk ebaluazio-jardura gisa erabiltzea eskatzen du. Esaterako, testua planifikatzean, eskemak egitea ebaluazio-jardueratzat har daiteke, informazioa bilatzeko eta hautatzeko unean sortzen diren arazoak zuzentzeko balio duelako.

Era berean, zirriborroak egiteak ere hizkuntzari lotutako arazoak antzeman eta zuzentzeko aukera ematen du.

Azken ebaluazioa edo ebaluazio sumatiboak lan-unitatean zehar zer ikasi den egiaztatu eta erakusteko balio du. Askotariko formak (proba, galdetegia, testua...) har ditzake eta beti erabiliko da prozesuan zehar jaso diren datuen eta behaketen osagarri.

Ikasunitateak amaitutakoan egin ohi diren probek ez dute ikasten laguntzen. Ikasitakoa egiaztatzeke baino ez dute balio eta hori ere ez beti. Gehienetan kontzeptuei eta oroimenari lotutako alderdiak ebaluatzen dituzte eta horiek ez dira oso esanguratsuak hizkuntza hobeto erabiltzen ikasteko.

Nork ebaluatu behar du?

Ikasgeletan irakaslea izan ohi da ebaluatzailea eta ikaslea ebaluatua. Ikuspegi komunikatiboak baina, ebaluatzailearen eta ebaluatuaren rolen dibertsifikazioa eskatzen du.

Funtsezkoa da ikasleek apurka-apurka beren idatzizko eta ahozko ekoizpenen kontrola hartzea. Antzeman egin behar dituzte zailtasunak eta akatsak, eta ikasi egin behar dute nola zuzendu eta ikastea nola bideratu. Horregatik, ebaluazio-zereginetan eta ebaluazio-prozeduran, apurka-apurka, ikasleek gero eta esku-hartze handiagoa izan behar dute.

Ebaluazio-irizpide zehatz eta argietatik abiatuta, ikasleek beren komunikazio-proiektuaren bukaeran ez ezik, prozesuan zehar ere, autoebaluazio eta koebaluazio txantiloak bete ditzakete.

Halaber, sekuentzia didaktikoaren amaieran, gauzatu duten prozesuz hausnartu behar dute ikasleek parte prozesuaren ebaluazioaren gaineko txantiloak eta rubrikak erabiliz.

Txantilo horietan, kontu hauei buruzko galderak egingo zaizkie: jardueren planteamendua, jaso duten laguntza, eta egindako lanaren alderdi baikor eta ezkorrak, besteak beste.

Nola ebaluatu?

Ondo bereizi behar dira ebaluazio-irizpideak eta kalifikazio-irizpideak. Ebaluazio-irizpideetan, ikaskuntza unitate bakoitzean edo ikasturte osoan lortu nahi diren helburuei lotutako alderdi esanguratsuak hautatzen dira. Kalifikazio-irizpideetan, berriz, erabili den ebaluazio-tresna bakoitzari (testuen laginak, probak, koadernoak, Portafolioa...) eman zaion puntuazio portzentajeari lotutako akordioak jasotzen dira.

Ebaluazio-prozesu guztiak ebaluazio-irizpideen eta horien adierazle zehatz eta argien arabera egin behar dira; izan ere, horiek emango diete zentzua ikasleek lortuko dituzten kalifikazioei edo egingo zaizkien oharrei.

Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak jakinarazi egin behar dira, eta ikasgaien programazioan adierazi, bai familiek, bai ikasleek ezagut ditzaten. Ebaluazio-tresnak, bai irakasleak, bai ikasleek ikas-prozesuaren garapenaren berri izateko erabiltzen dituzten baliabideak dira. Tresna bat edo beste hautatzea ikasteko helburuei lotuta dago bereziki.

Horrenbestez, ebaluazio-tresnak askotarikoak izan behar dira, eta ikasleen ahozko eta aukera eman behar dute honetarako: idatzizko testuen ekoizpen kopuru nahikoa jasotzeko, eta ikasleen aurrerapenenak eta zailtasunak zein diren zehatz jakiteko. Hori dela eta, Portafolioa ezinbesteko ebaluazio-tresnatzat jotzen da.

6. BALIABIADAK

Bigarren Hezkuntzan Ingelesa Edukien Bitartez CLIL/EHII metodologian oinarriturik. Landutako unitateak eta arloak hauek dira: geografia, historia, erlijioa, filosofia, politika, natur zientziak eta zientzia, literatura, diseinua eta musikara aplikatutako artea.

BHINEBI 12-16. Helbide honetan:

<http://tinyurl.com/6z9dzvv>

CLIL/EHII metodologiaren inguruan, irakasleentzako baliabideak eta materialak. Arloetako zein atzerriko hizkuntzetako irakasleentzat.

CLIL - Home. Helbide honetan:

<http://www.clilconsortium.jyu.fi/>

Autoebaluaziorako eta ikasten ikasteko tresna. Europar markoan oinarritutakoa

Portfolioa. Helbide honetan:

<http://tinyurl.com/2eny6dl>

Sekuentzia didaktikoak, oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko. DBH.

Hizkuntzen Trataera Bateratua. Helbide hauetan:

<http://tinyurl.com/6bdouph>

<http://trataerabateratua.wordpress.com/>

Hezkuntza-esparruan ikasleek burutu behar dituzten ikerketa jarduerak dira informazio-iturri nagusi gisa *webgunea* erabiliz. Elkarlana eta ikaslearen autonomia sustatzen laguntzen dute.

WebQuest.Org: Home. Helbide honetan:

<http://webquest.org/>

IKT baliabideen helbideak hizkuntzak irakasteko.

BBC - Schools - Ages 11-16. Helbide hauetan:

http://www.bbc.co.uk/schools/websites/11_16/

Education ICT 5-14 Implementation

<http://www.educationict.org.uk/>

Free Tools For Teachers.

<http://www.suelebeau.com/freetools.htm>

Teachers direct. Run by teachers for teachers

<http://www.teachers-direct.co.uk/resources/>

7. BIBLIOGRAFIA

175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa.

III. Eranskina: Oinarrizko Gaitasunak. (2007, November 13).

Helbide honetan: <http://tinyurl.com/25e3ref>

V. eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Euskara eta literatura, eta gaztelania eta literatura, eta atzerriko hizkuntza. (2007, November 13).

Helbide honetan: <http://tinyurl.com/2e64eog>

97/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena.

Helbide honetan: <http://tinyurl.com/25sgg8j>

Airasian, P. W., Anderson, L. W., Cruikshank, K. A., Krathwohl, D. R., Mayer, R. E., Pintrich, P. R., et al. (2000). *Taxonomy for Learning, Teaching, and Assessing, A: A Revision of Bloom's Taxonomy of Educational Objectives*. Boston: Allyn & Amp; Bacon.

Aubert, A., Flecha, A., Garcia, C., Flecha, R., & Racionero, S. (2008). *Aprendizaje dialógico en la Sociedad de la Información/ Learning Dialogue in the Society of the Information (Spanish Edition)*. Barcelona: Hipatia.

Barkley, K. P. (2007). *Técnicas de aprendizaje colaborativo*. Madrid: Narcea. S.A. Ediciones Madrid – España Ministerio De Educación Y Ciencias Centro De Investigación Y Documentación Educativa, Cide.

Bubbl.us - free web application for brainstorming online. Helbide honetan:

<http://bubbl.us/>

CLIL - ccn. *CLIL - Home*. Helbide honetan:

<http://tinyurl.com/39g45lm>

Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment (CEFR). Council of Europe. Education.

Helbide honetan: <http://tinyurl.com/6xps58s>

Cummins, J., Barker, C., & Hornberger, N. (2001). *An Introductory Reader to the Writings of Jim Cummins (Bilingual Education and Bilingualism, 29)*.

Clevedon-Philadelphia: Multilingual Matters Limited.

Dishon, D., & O'Leary, P. W. (1998). *Guidebook for Cooperative Learning: Techniques for Creating More Effective Schools*. Holmes Beach, Florida: Learning Pubns.

Echevarria, J., Short, D. J., & Vogt, M. (2007). *Making Content Comprehensible for English Learners: The SIOP Model (3rd Edition)*. Boston: Allyn & Bacon.

European Commission - Education & Training - *lifelong learning programme - A single umbrella for education and training programmes*. EUROPA - European

Commission - Homepage. Helbide honetan: <http://tinyurl.com/6zoov9k>

Hizkuntza-Komunikaziorako Gaitasuna. Orientabideak. Hezkuntza Saila – Eusko

Jaurlaritza - Euskadi.net. Helbide honetan: <http://tinyurl.com/38dsmrb>

Pedró, F. (2006). *The New Millenium Learners: Challenging our Views on ICT and Learning*. OECD: Organisation for Economic Co-operation and Development.

Helbide honetan: www.oecd.org/dataoecd/1/1/38358359.pdf

Teaching Knowledge Test (TKT) Content and Language Integrated Learning (CLIL).

Handbook for Teachers. (2009). University of Cambridge. ESOL Examinations.

Helbide honetan: www.cambridgeesol.org/assets/pdf/tkt_hb.pdf

APA formatting by BibMe.org.
Mindmapping by Bubbl.us